

# MAITE LOPEZ LAS HERASEK ALFONSO GOIZUETA

## ELKARRIZKETATU DU

Alfonso Goizueta idazleak, 2023 Planeta Sariko finalistak, *Troiako ametsa* eleberri berria aurkeztuko digu. Literatura, mitologia eta ametsak uztartuko dira Maite Lopez Las Heras idazle, poeta eta itzultzaile bikainarekin solasean.

Alfonso Goizueta (Madril, 1999) Historian ohorezko lizentziaduna, Nazioarteko Harremanetan doktorea Londresko King's Collegen eta idazle espainiarra da. Spotifyko *La Torre del Faro* podcastaren sortzailekidea eta aurkezlea ere bada, non berak eta bere lankide Nicolás Oriolek gaurkotasunari, politikari eta kulturari buruz jarduten duten. Bere argitalpenen artean, honako hauek daude: gerrarteetako Europako historia geopolitikoari buruzko bi liburu, *Limitando el poder* (2017) eta *Los últimos gobernantes de Castilla* (2018); bere lehen eleberria, *Corazón de deidades* (2020); Alexandro Handiaren figura berreskuratzen duen liburua *La sangre del padre* (2023), eta zeinarekin Goizueta Planeta Sariaren finalista izan zen; eta *El sueño de Troya* (2025), Heinrich Schliemann arkeologoari buruzkoa.

**Maite López Las Heras. 24 urterekin Planeta Sariaren historiako finalista gazteena bihurtu zinen. Arrakastak ba al du eraginik zure sormen prozesuan?**

Planeta Saria, alde batetik, laguntza handia izan zen; literaturan profesionalki aritzeko aukera eman zidan eta nire lana irakurlego zabal batengana iritsarazi zuen. Baina, bestetik,

badu ameskeria alderdi hori: ospea arriskutsua da; nahas zaitzake, benetan idatzi nahi duzuna ahaztarazi diezazuke. Etengabe saiatzen naiz arduragabetasunez idazten, Javier Mariasek esan zuen bezala, inguruko guztia ahaztuz.

**MLLH. Schliemannek antzinako Troiaren aztarnak aurkitzea amesten zuen. Zein da zure ametsa idazle gisa?**

Nire ametsa idazten jarraitzea da, inguratzen nauen munduak, bertako bizilagunek, harritzen jarraitzea. Literaturaren bidez gizateria ulertzen saiatzen jarraitzea. Gizakia hobeto ulertzen laguntzen didan eleberri bat aurkitzea amesten dut.



Maite López Las Heras  
Bizenta Mogel saria euskarazko ipuinean. Lasarte-Oria saria euskarako poesian.

**MLLH. Zure eleberriak toki eta pertsonaia historiko eta pertsonaia oso zehatzetan girotzen dira. Nondik datorkizu greziar mitologiarekiko duzun grina? Zerk erakartzen zaitu Antzinarotik?**

Greziar mitologiarekiko dudana grina aspalditik dator; nire hastapena izan zen literaturan. Gainerako guztia greziar mitologiarekiko dudana jakin-minetik sortu da: sarbidea izan zen. Nolabait ere, mitoaren xerka edo Troia hiria bila dabilen arkeologo bati buruz idaztea haurtzarora itzultzea bezala izan da: nire jatorriaren bila aritu naiz.

**MLLH. Francisco de Vitoria Unibertsitateko irakasle elkartua zara. Nola bateratzen dituzu irakaskuntza eta idazketa? Zer ematen dizu lanbide bakoitzak, eta zer kentzen?**

Unibertsitateko irakaskuntza betetzen nauen eta gozatzen dudana jardura bat da. Ikasleekin harremana izatea gogoko dut. Nire fantasietatik aterazten nau eta egiazko munduari arreta jartzera behartzen nau. Oreak eta lasaitasuna ematen dizkidan jardura bat da. Irakaslearena eta idazlearena bi lanbide paralelo dira, ez dira gainjartzen, baina batak besteari izaten uzten dio. Ez ditut nire bizitzako esparru horiek nahasten. Eleberrigileak nire izatearen gero eta zati gehiago hartzen ditu.

---

“Idaztea  
gizakia  
uleritzeko  
modu bat  
da”



**MLLH.** Alexandro Handiak, besteak beste, lider eredu garri izatea du ezaugarri. Historialari gisa, zer uste duzu Mazedoniako erregeak egungo lider politikoei irakatsi diezaiekeela?

Hura ulertzeko, *Aitarek odola* (*La sangre del padre*) izeneko nire eleberria irakurtzea gomendatuko nieke egungo buruzagiei! *Aitarek odola* boterearen, haren prezioaren eta bakardadearen inguruko hausnarketa da. Eleberrian, Alexandro lider idealista gisa hasten da eta pixkanaka gainbeheratzen da, suntsitzera joan zen haien pareko tirano bilakatzen delarik. Amaieran, eleberriak konkistaren hutsaltasunaz hausnartzen du eta, azken kapituluetan, hilzorian dagoen Alexandro bat aurkezten digu, bere buruari guztiak merezi izan duen galdetzen diona.

**MLLH.** Zure eleberriek, historikoak izanagatik, autobiografikotzat jo daitezkeen ezaugarri asko dituzte. *Troiako ametsa* (*El sueño de Troya*) liburuaren protagonista, adibidez, Nicholas Yannikis greziar gaztea da, aurkitzailearen ibilaldiak lehen pertsonan kontatzen dituena. Elementu autobiografiko horiek zeintzuk direla esango zenuke?

Eleberri guztiek dute autobiografikoa den zerbait; egilearentzat zaila da historiari guztiz aldentzea urruneko jainko edo eleberriko unibertsoa abian jartzen duen eragile mugiezin gisa soilik funtzionatzeko. Pertsonaia guztiek, ez Yannikisek bakarrik, autobiografikoa den zerbait dute. Istorioak berak badu autobiografikotik. *Troiako ametsa* irakurtzean, arkeologo temati baten eleberri gisa ez ezik, idazle baten eleberri gisa ere pentsatzea gomendatzen diet irakurleei. Idazteko ofizioaz, literaturaz diharduen eleberria da.

**MLLH.** Gizarte-zientziek hezkuntzan duten gainbehera eta eskola-curriculumetatik kanpo uzten dituzten garaiotan, zer uste duzu eman dezakeela greziar mitologiaren ezagutzak gaur egun?

Gure kultura osoa klasikoaren gainean eraikitzen dugu. Mendebaldeko zibilizazioa Homeroren alaba da. Mendebaldeko literatura guztia *Iliadan* eta *Odisean* laburbiltzen da; orduak idatzitako eleberri guztiek, atomizatuta, gai homerikoak errepikatzen dituzte.

**MLLH.** Zure eleberrietan, pertsonaia historikoen alderdirik gizatiarrena nabarmentzen da. Antzinako Troiako zibilizazioaren aztarnak aurkitzeko itsuturik dagoen arkeologoaren guraria ikusten dugu, edo konkistatzaile gazte baten asmoak. Halaber, oso ezagunak ez diren Calvert bezalako pertsonaia ezezagunei ahotza ematen diezu. Zenbateraino nabarmentzen dituzte zure lanek gai sozialak?

*Troiako ametsa* liburuan, izugarri interesatzen zaidan gai sozial bat aipatzen dut, gure gizarteak, XIX. mendekoak bezala, oraindik ere pairatzen duen gatazka bat: diru berriaren eta haren balioen gorakada, aristokraziaren balio zaharren aurka. XIX. mendean, esku artean dugun eleberrian, Schliemannek bere parekoak baizik errespetatzen ez dituen industria-diru berri hori ordezkatzeko du, guztia berehala nahi duena, eta diruak lor diezaiekeela uste duena. Calvert, berriz, aristokrata txirotu bat da, guztiek bere balio-kode bera partekatzen dutela uste duena. Pertsonaia biak zorigaitzoko talka batera kondenatuta daude. Oraindik bizirik irautea duten arketipo sozialak dira.

**MLLH.** Londresen bizi izan zinen hainbat urtez. Zure heziketa anglofonoak izan al du eraginik zure idazketan?

Izugarri. Anglo-amerikar literatura nire hezkuntzaren funtsezko atala da.

*Troiako ametsa*, nire ustez, sustrai anglosaxoiak dituen eleberria da: eleberri gotiko britainiarra eta, batez ere, Herman Melvilleren *Moby Dick* izan dira berau eraikitze oinarriak.

**MLLH.** Zer nolako irakurlea zara? Zeintzuk dira zure genero gogokoena? Eta zure lanik gogokoena?

Irakurle puntalakurloa, Kafkak esan bezala, bihotzean sastada modukoak diren liburuak bilatzen dituena, inor epel uzten ez duten horietakoak. Azalekoa eta semiotikoki auresangarria den literatura saihesten dut (zoritzarrez, horixe da liburu-dendetan ugaria dena). Eta, nire adina kontuan hartuta, oraindik klasikoak irakurtzen ari naiz.

## HISTORIAREN PROTAGONISTAK

- Alexandro Handiaren mosaikoa. Faunoaren etxea. Ponpeia
- Sofia Schliemannen erretratua, Priamoko altxorra (1873) erakusten duena.
- Heinrich Schliemann, Mizenasko Lehoien Atean, K. a. III. mendean eraikia.

*Moby Dick* irakurtzeko eta idazteko modua aldatu didan liburua da. Gaur egun, gogokoenen artean dago, zalantzarik gabe. Idazle garaikide bat nabarmentzearen: Javier Cercas maite dut; bizirik dagoen espainiar idazlerik onena dela esango nuke.

**MLLH.** Emakumeak funtsezko pertsonaia dira zure lanetan. Zein nabarmenduko zenuke eta zergatik? Non inspiratzen zara emakumezko pertsonaia hauen izaera eraikitzerakoan?

Pertsonaia sendoak dira; beraien istorioetan inspiratzen naiz. Sisigambis bezalako pertsonaia, Alexandroren amatzakoa *Aitarek odola* liburuan, edo Sofia Schliemann *Troiako ametsa* liburuan... ez zegoen inorengan inspiratu beharrik, haien izaera iradokitzailea baita.

**MLLH.** Zer aurkituko du irakurleak zure liburuetan?

Iraganerako itzulera, norbanakoaren orainaldi hilezkorra inoiz bistatik galtzen ez duena. Ez dira eleberri historikoak. "Eleberriak" besterik ez dira: gizakia esploratu nahi dute; historia hori lortzeko bektore bat baino ez da.

**MLLH.** Zer aholku emango zenioke idatzi nahi duen gazte bati?

Irakurtzea. Arreta handiz irakurtzea. Eta ondo irakurtzea. Gure garaiko esakunerik okerrean irakurtzea berez ona dela da. Zer irakurri jakin behar da. Irakurle gisa, begirada kritikoa zorroztea.

**MLLH.** Amaitzeko, ba al duzu proiekturik esku artean?

Zerbait gertatzen ari da. Oraindik ez dakit zer finkatuko den. Ideiak zirriborratzen ari naizen sasoiaren nago, norantz eramango nauten ikusi nahian.

# “IRAKURLE PUNTALAKURLOA, KAFKAK ESAN BEZALA, BIHOTZEAN SASTADA MODUKOAK DIREN LIBURUAK BILATZEN DITUENA, INOR EPEL UZTEN EZ DUTEN HORIETAKOAK”

**“NIRE NOBELAK EZ DIRA  
HISTORIKOAK. ELEBERRIAK BESTERIK EZ DIRA: GIZAKIA  
ESPLORATZEA BILATZEN DUTE; HISTORIA HORI LORTZEKO BIDE  
BAT BAINO EZ DA”**

